

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA

Hautaketa eta Garapenaren Zerbitzua

Karrerako funtzionarioen izendapenak argitaratzea

Ikusi dira Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpenak, ebazpen honen eranskinean jasotakoak. Ebazpen horietan, Vitoria-Gasteizko Udalaren Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagozkion karrerako funtzionarioak izendatzea erabaki da, Vitoria-Gasteizko Udaleko lanpostuen zerrendako zenbait lanpostu birsailkatzeko antolamendu-planari dagokion barne-sustapeneko prozesuaren ondorioz.

Ebazpen hau egin den egunean, eranskinean jasotzen diren karrerako funtzionarioak izendatu eta lanpostuaz jabetu dira.

Azaldutakoarekin bat etorritz, eta Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak (Tokiko gobernu modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua) 127. artikuluan emandako eskumenen arabera, eta Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2023ko ekainaren 22an emandako erabakiaren bidez emandako eskumen-eskuordetzarekin bat etorritz, honako hau

EBATZI DUT

1. ALHAOn argitaratzea erabakitzea Enplegu Publikoaren Eskaintza honen ondoriozko karrerako funtzionarioen izendapenak dagokion eskala / mota / kategoria eta talde berean jasota, eta ondorioak izateko datak izangai bakoitzarentzat zehaztuta.

2. Ebazpen hau interesdun guztiei jakinaraztea, administrazio-bidea amaitzen baitu; haren aurka zuzenean administrazio-auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, berraztertze-errekurtsua ebazpen hau eman duen organo beraren aurrean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean. berraztertze-errekurtsuaren berariazko ebazpenaren aurka, administrazio-auzi errekurtsua aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Aretoan, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko uztailaren 14an

Funtzio Publikoaren Saileko zinegotzi ordezkariak
JON ARMENTIA FRUCTUOSO

ERANSKINA

IZEN ABIZENAK	COPU	POSTUAREN DESKRIBAPENA	ESKALA	EFEKTU DATA
AGRA BURGOS, BELEN	1605	Baso-Kudeaketako Teknikari Espezialista	2230C	4/1/2025
GONZALEZ DE ARTAZA RUIZ DE LARRINAGA, ELENA	1482	Euskal dantzen irakaslea	2230C	2/1/2025
URTEAGA GOMEZ, AITOR	1483	Trikitixako irakaslea	2230C	2/1/2025
LOPEZ DE LUZURIAGA ALONSO, ERRANDO	1483	Trikitixako irakaslea	2230C	2/1/2025
ELOSEGUI GONZALEZ DE GAMARRA, JON JOSEBA	1485	Gaita-dultzainako irakaslea	2230C	2/1/2025
GOMEZ PALACIOS, JUAN JOSE	1485	Gaita-dultzainako irakaslea	2230C	2/1/2025
CARDENAS GARCIA, ALVARO	216	Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko Burua	2110A	2/1/2025
IBAÑEZ MEDEL, JOSE IGNACIO	5086	Industria-Higieneko Prebentzio-Teknikaria	2110A	2/1/2025
BUSTAMANTE GALLEG0, SUSANA	5088	Ergonomiako Prebentzio-Teknikaria	2110A	2/1/2025